

Donostiako Diputazio Jauregian, 1981.eko irailaren 25ean, arratsaldeko 4etan hasi du Euskaltzaindiak hileroko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, F. Krutwig, E. Larre, J. San Martín, F. Ondarra eta J. M. Satrustegi euskaltzain osoak. J. M. Aranalde, N. Alzola, J. A. Arana, M. Atxaga, X. Garmendia, J. Intxausti, L. M. Mugica, P. Charritton, J. L. Lizundia eta A. Zatarain euskaltzain urgazleak.

Euskaltzain osoen bilkuran egon dira, beste alde, eta arratsaldean etortzerik ez dute izan, J. L. Davant, Iratzeder, A. Irigoyen eta L. Michelena jaunak.

J. Hiriart-Urruty, E. Knörr, P. Lafitte eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztaileko agiria onartu da.

Etienne Salaberry, Tene Mugica euskaltzain ohorezkoen, eta Imanol Berriatua euskaltzain urgazlearen hil berriak eman dira. Hartu diren gutunen artean, Karlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak Tene Mugica eta Imanol Berriatuaren galtzeagatik dolumina agertu du, eta M. Gómez de Pablos Iberduero enpresako arduradunen buruak Imanol Berriatuarena.

Goizeko bilkuren berri

1. Asturiasko Hizkuntz Akademiaren gutun bat hartu da Euskaltzainburua Elkargo haren ohorezko partaide izandatzan.

2. Gipuzkoako Diputazioak sortu berri Hizkuntz Kontseilaritzan parte hartzera deitua izan da Euskaltzaindia. Elkargo mailan ez bainan, Jagonsailako batzorderen bat hala nola Bertsolaritza batzordea, barne egotea erabaki da.

3. Urriaren 3an, larunbatarekin, Euskaltzainburugoa, euskaltzain osoak eta batzordeburu edo berorien idazkariak, Durangon goizeko 9 etan bilduko dira, eskuarteko lanen egoera ikusi eta datorren urteko behar nagusien kopurua zehazten joateko.

4. Hiztegi espezializatuen eta Euskaltzaindiak eman diezaiekeen babesaren arazoa eta erantzunkizuna, hobeki zehazteko utzi dira. Urriko batzarran erabakiko da.

5. Azkue Bibliotekako arautegia eginik dago eta jaso diren oharrak kontuan harturik, onartua izan da. Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez argitaratuko da.

6. "Txomin Agirre" nobela sarirako epaile hauek izandatu dira: F. Krutwig, J. San Martin, eta A. Irigoyen. "Mikel Zarate" saioen sarirako, berriz, F. Ondarra, P. Charritton eta X. Garmendia.

Txostenak

L. M. Mujikak "Hitz exsozentrikoak euskal lexikoan" aztertu ditu. Bere esanahi jatorrizko beste alde hitzak izan ohi dituzten esaera oso ezberdinak azpimarratuz taxutu du bere lana.

Txomin Peillen jaunaren kezka, orain arte ezagutzen ditugun antzerki horiek ote ditugun euskal literaturan zaharrenak. Zenbait pastoral eta beste lan batzu ez ote ziren lehenago sortu? Balegoke horretan ere aztergai ederrik.

Herri izendegia. J. L. Lizundiak, Herri izendegiari buruz egindako lanen berri eman du. Udalena egin zen lehen, eta herriska eta auzoena orain. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoak zenbait herrialde eta bailaretan amaituak dira.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JOSE M.^a SATRUSTEGI